

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ogasunak zergadunen % 50 bat aitorten-proposamen argitaratu ditu Interneten

*NAN zenbakia navarra.es webgunean sartuta dokumentua eskura daitekeen jakin daiteke*

Jueves, 07 de abril de 2016

Nafarroako Zerga Ogasunak 239.885 zergadunen PFEZ eta Ondareari buruzko 179.068 aitorten-proposamen argitaratu ditu gaur Interneten, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunearen bidez, Nafarroan zergak ordaintzen dituztenen % 50 inguru.

Ogasunak proposamena osatu duen jakiteko, nahikoa da NAN zenbakia sartzea. Edukia eskuratu nahi izanez gero, PIN zenbakia ere jarri behar da (aurreko urteko aitortenari eransten zaion pasahitza). Proposamen guztiak paperean dagozkien etxeetara bidaliko dira hilaren 15a baino lehen.

Aitortenaren emaitza" itzultzea" bada, Ogasunak zenbatekoa apirilaren 18an sartuko du. 120.700 proposamen inguru sartzen dira kategoría horretan, eta 71,9 milioi itzuliko dela aurreikusten da.

Emaitza "ordaintzea" bada, Ogasunak zenbatekoa bi ordainketetan helbideratuko du (% 50 bakoitza), uztailaren 1ean, ostirala, eta azaroaren 21ean, astelehena. 50.000 bat proposamen daude egoera horretan (36,6 milioi euro). Beste 9.600 bat aitortenek zero kuota dute.

Aitorten-proposamenak jasotako pertsonak, ados ez badaude, beste aitorten bat egin beharko dute gaurtik aurrera bulego birtualaren bidez edo fisikoki apirilaren 20tik aurrera [18 erakunde-laguntzaile](#)etan (1.300 arreta-puntu) edo Ogasunaren sei bulegoetan. Ados badaude, ez da inolako urratsik egin beharrik.

Nafarroako Gobernuak sarea hautatzen dutenentzat (Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuterako bulegoak), aurretiaz hitzordua eskatu behar da astelehenetik, apirilaren 18tik aurrera. Hitzordua



Kanpainaren kartela.

eskatu dezakete [navarra.es](http://navarra.es) helbidean edo 948 505 505 eta 948 505 506 telefono-zenbakietara deituta.

Gogora ekarri behar da Ogasunak zergeri buruzko zalantzak argitzen dituela 948 505152 telefono-zenbakietara deituta, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 17:30era (NAN eta PINa beharrezkoak dira). Eta [webgunean](#) dozena bat izapide eskaintzen ditu sarean (PINaren kudeaketa, aitortenak inprimatzea...).